

## Noaua!! albisteak

### "1. Sagastiak Loretan ospakizuna", apirilaren 27tik aurrera

[2013-04-17]

Sagarrondoan loraldiari gorazarre egin asmoz, "1. Sagastiak Loretan" izeneko ospakizuna antolatu da hurrengo asteetarako Usurbilen.

Egitarau zabala prestatu du, elkarlanean jardun duen eragile talde batek.

Antolakuntza lanetan parte hartu dute hain zuzen, Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarteak; Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak; NOAUA! Kultur Elkarteak; Usurbilgo Sagastia E.M.; Itaya Gazte Asanbladak; Aitzaga Elkarteak; Sagardoa eta Sagarra Unibertsitateak; eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak.

Ekitaldi sorta bat bere baitan hartu eta hilabetez luzatuko den zikloa izango da, "1. Sagastiak Loretan ospakizuna". Apirilaren 27rako deitu dute lehen hitzordua: sagasti loretueta barrera egin nahi den ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Azkena ekainaren 1erako, sagastien udako inausketa ikastaroa. Eta tartean, sektore honi loturiko beste zenbait ekimen burutuko dira. Urteroko Sagardo Egunarekin batera, Aginagako Saria baserria ezagutzeko aukera egongo da. XVI. mendeko dolare baserria dugu Saria. Bestalde, ikerketa baten emaitzak plazaratuko dira laster: "Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" izeneko lanaren nondik norakoen berri emango da jendaurrean.

Ekitaldiotan argi denez, zer ikusi eta zer entzuna izango da. Baina baita zer probatua ere. Bertako sagarkien dastatze ikastaroa antolatu dute eta, egitarau zabal honen baitan. Egitarauaz ari garela, oraindik aldaketaren bat izan dezakeen arren, hona hemen datozen asteetarako antolatu diren ekitaldiak:

### 1. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA USURBILEN

#### Apirilak 27, larunbata

9:30 Sagasti loretueta barrera ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibatik abiatuta.

#### Maiatzak 7, asteartea

19:30 "Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" ikerketaren aurkezpena Potxoenean, Leire Jauregi Nekazaritza Ingeniariaren eskutik.

#### Maiatzak 18, larunbata

17:00 Berreskuratutako XVI. mendeko dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua Aginagako Saria baserrian, Luis Alberdi arkitektoa eta Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik.

#### Maiatzak 19, igandea

XXXII. Sagardo Eguna, Usurbilgo plazan, egun osoz. Sutegin "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa.

#### Maiatzak 23, osteguna

19:30 Usurbilgo sagarkien dastaketa ikastaroa Aitzaga Elkartean: sagar-dultzea, muztioak eta sagardoak...

#### Ekainak 1, larunbata

9:00 Sagastien udako inausketa ikastaro teorikoa eta praktikoa Potxoenean, Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik.



## Apirila 2013

As	As	As	Os	Os	La	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

## Zorion Agurrak



Zorionak Ane! 13 urte beteko dituzu apirilaren 15ean. Zorionak eta muxu potolo bat familikoen partez.



noaua MunduMOB ekimenaren aurkezpena gaur, 19:30etan Potxoenean. [noaua.com/?atala=albiste...](http://noaua.com/?atala=albiste...)  
8 minutes ago · reply · retweet · favorite

noaua Espetxeratu berri dituzten gazteei elkartasuna adierazi die, Usurbilgo Ermaik. [noaua.com/?atala=albiste...](http://noaua.com/?atala=albiste...)  
9 minutes ago · reply · retweet · favorite

noaua Sorturen Usurbilgo Herri Kontseilua aurkeztu dute. [pic.twitter.com/cKNNKTftAj](https://pic.twitter.com/cKNNKTftAj)  
9 minutes ago · reply · retweet · favorite

Join the conversation

Antolatzaileak:

- Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarte.
- Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- NOAUA! Kultur Elkarte.
- Usurbilgo Sagastia E.M.
- Itaya Gazte Asanblada.
- Aitzaga Elkarte.
- Sagardoa eta Sagarra Unibertsitatea.
- Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte.

Zabaldu:  Twitter  Facebook  Zabaldu  Bildu  Del.icio.us  Aupatu

Izena:  Posta elektronikoa:

Mezua:



Bisitari kopurua  
**0153742**

